

Arrasate

P R E S S

1996ko
Otsailak 16
308. zenb.

KULTURA

Play Back
jalaldia

IRITZIA

Fernando
Aguriondo

KIROLA

AUKEA sarien
banaketa

Eskuak gora!

HARATUZTEAK
dira eta



ALTZARIAK Berango

5 URTEKO GARANTIAZ

SUKALDERAKO EKIPAMENDU OSOA



- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

Banatzailea:

FAGOR 

 **aspes**

 **DeLonghi**

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g

Gipuzkoa Etorbidea

ARRASATE Tfnoa: 79 01 92



omu keramikak

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

- Keramikazko zoru eta estalketak.
- Baldosa, terrazo eta marmola.
- Idorrek, zementuak eta kolak.
- Hormigoizko aurrefabrikatuak.
- Isolagarri eta gehigarriak.
- Sukaldeak eta su-bajuak.
- Teilatuentzat leihoak.
- Ordezkoak.

Zure biltegia Deba Garaian.

ERAKUSKETA: Otalora, 1 behea • Tfnoa: 79 07 20

BILTEGIA ETA BULEGOAK: Meatzerreka, 6 • Tfno eta faxa: 79 14 28



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

° HIZKUNTZ ARAZOAK

· HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Santageda mutilak

Deba Garaiko herriak elkarren ondoan badaude ere, zenbait ohituratan desberdinak dira. Arrasaten, adibidez, horren ezaguna den San Nikolas eguna ez da ospatzen ez Aretxabaletan ez Eskoriatzan; "kinttoen" ohitura, aldiz, Arrasaten ezik, beste bietan ospatzen da.

Arrasaten Santageda koruak irteten du baserri baserri eta kalez kale kantuan, eta jasotako dirua, garai batean Ospitalerako izaten zena, azken urteetan behartsuenentzat izaten da. Arrasaten kantuan irteten duen koruak, ez du zerikusirik kinttuekin. Aretxabaleta eta Eskoriatzako Santageda mutilak, berriz, urte horretako kinttuak dira, hau da, urte horretan soldaduzkara joateko adinean sartu diren mutilak. Beraz, urtero-urtero mutil desberdinak dira taldea osatzen dutenak eta jai honetan herriko mutil guztiek parte hartuko dute, edo horretarako aukera izango dute.

Astebete luze daramate dagoeneko gazte hauek kalean zehar, eta herri hauetatik pasa garenok ikusi ahal izan ditugu beren jantzi txuri-gorriekin gozokiak edo ardo tragoska eskaintzen borondatearen truke. Ohitura hauen ezaugarriekin jarraituz, Arrasateko koruak Santageda bezperan irteten du kantuan, Santageda mutilek berriz, Santageda bezperan hasi eta ihauteri egunera arte jarraituko dute igandero-igandero irteten.

Beraz, esan bezala, tradizio hau soldaduzkara joan behar horretan dago sustraitua eta jasotzen duten dirua beren gastuetarako erabiltzen dute. Gaur egun, aldiz, eskuetan estatistikarik ez badut ere, badakigu Estatu osoan Euskadi dela intsumiso gehien duen herria. Nire idaztitxoaren puntu honetara helduta mutilek pentsa lezakete: Kontuz! Hau guri jaija kentzera zetorrek-eta! Baina ez, ez da hau nire asmoa, batetik nor ez naizelako horretarako, eta, bestetik, nire jaija ez delako.

Burutazio hauekin jarraituz pentsa daiteke, batetik gazte gehienak desmilitarizazioa eskatzen ari direla, eta bestetik, derrigorrezko militarizazioak sortutako ohitura dagoeneta mantentzen ari garela. Ez ote dago bien arteko kontraesanik? Seguruenik, niri bezala beste askori ere jarraiako pentsamenduak etorri zaizkio gogora: Soldaduzkara joaten ez badira zertarako Santageda mutilak? Pentsa liteke, bestalde, gaur egun ez dagoela jai hau zuzenean soldaduzkarekin lotu beharrik, eta jai jatorra eta aspaldikoa denez mantentzea merezi duela. Horrela balitz, zer dela-eta mutilek bakarrik ospatu eta ez neska-mutilek?

Gai honen inguruko hausnarketa egitea mereziko lukeela uste dut.

MATILDE SAINZ OSINAGA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Carlos Murillo



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

•••••

Elkartasuna

Joan zen urtarrilaren 15ean, Euskal preso politikoeek beste gose greba bati ekin zioten. Berriro ere, neurri gogor bat hartu beharrean egon dira pertsona gisa dituzten eskubideak errespetatzea eta Euskal Herriko espetxeetara ekartzea exigitzeko.

Ez beraiek, ez beraien senideek, ez sentsibilitate pixka bat duen herri honetako inork ere ez du gogoko legez errespetatu eta bete beharko lirartekeen gaiak erreindikatzen berriz ere bide gogor honetara jo behar izatea.

Urteetan zehar legebiltzar, alderdi politiko, epaile eta abarri ate joka eta erasoei, isolamenduari, asistentzia medikorik ezari, ... amaiera emateko eskatu ondoren, instituzioen aldetik ezetza eta modu txarrak baino jaso ez direnez,

ondorio honetara heldu gara: zuen guztion elkartasunarekin eta presio sozialarekin baka-riki ziurtatu ahal izango ditugu espetxeetan bizi-baldintza duinak.

Azkenaldian hainbat alderditako politikariei entzun ahal izan diegu esaten sakabana-keta presoentzat beste zigor bat baino gehiago dela eta legez kontrakoa izateaz gain porrot egin duen formula dela. Hala ere, politikoeek ez dute ezertxo ere egiten arazo honi konponbidea emateko.

Superbibentzi egoera izaki, Arrasaten lan egiten duten agente sozialek gure presoekiko elkartasuna bideratzeko lanean hasi gara, instituzioei helerazi eta egoera mingarri honi irtenbidea emateko helburuarekin.

Esandako guztiagatik, ondorengo puntuekin bat egitea eskatzen dizuegu:

- Sakabanaketa politikaren berehalako amaiera exigitzea, legez kontrakoa eta beste zigor bat gehiago delako, bai presoentzat bai bere senitartekoentzat.

- Euskal Herriko espetxeetara ekartzea euskal preso guztiak, bai politikoak bai sozialak.

- Presoak elkartzea, talde diren aldetik elkarrekin bizi ahal izateko.

- Pertsona eta preso gisa dituzten oinarrizko eskubideak erabat errespetatzea.

Lan honen ezaugarritzat eskura edukiko duzuen anagrama bat izango da, balkoi eta toki publiko guztietan jartzeko. Hauek eskura izango dituzue Senideak-ek egiten duen enkarteladetan (astear-ean 7etatik 8etara Seberon).

**ARRASATEKO SENIDEAK
ETA AMNISTIAREN ALDEKO
KOMITEA**



Joseba Agirianok agur esan zigan joan den ostira-lean, bihotzekoak jo ondoren. Laguntzaile fin horietakoa izan da guretzat Joseba, betik laguntzeko prest. Joan den astean bertan, foto zaharra egin ahal izateko berak eman zizkigun xehetasunak. Aurrera begira plana ere egin genuen, goiz batzutan hona etorri eta argazki zaharrek lagunduko zigula.

Baina horrelakoa da bizitza... Josebak beti izango du txokotxo bat ARKOn ari garenon bihotzean.

Denagatik, mila esker Joseba!



LORAMENDI


Eski ekipoen eskaintzak.

Txamarrak eta buzoak %30

Eski praktikak %50

ESKULARRUAK, TXAPELAK ETA ESKIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA.

Zelan ikusten duzu haratuzteetako giroa?



Xabier Abalde
Diputazioko langilea
(52 urte)

Giro ona egoten da, baina egun gehiago ipini beharko lirateke. Jendearen irudimena ere saritu beharko litzateke. Ni neu elur-gizonez mozorrotuko naiz.



Garikoitz Urrutia
Ikaslea
(17 urte)

Egunean zehar umeendako giro ona izaten da, eta gauez tabernetan giro aparta egoten da. Karnabalak hobetzeko aste osoan jai izan beharko genuke.



Miren Gurutze Mujika
Kiroldegiko langilea

Giro ona egoten da, baina hobetzeko egun osoa jai hartu beharko genuke. Aurten ez naiz mozorrotuko, dagoeneko mozorrotuta nago eta.




Mercedes Ruiz de Alegria
Estankoko langilea
(55 urte)

Ilusio handia eta giro ona izaten da. Hobetzeko ez nuke ezer egingo, nire ustez herriak nahikoa gogo izaten du.



Nuria Martinez
Administraria
(26 urte)

Nire ustez giro jatorra egoten da. Eguraldiak laguntzen badu, dena irteten da ondo. Aurten ez naiz mozorrotuko.



Lorentxo Altube
Jubilatua
(63 urte)

Lehen baino giro hobea egoten da. Lehen etxe giroan ospatzen genituen haratuzteak. Ni neu ez naiz mozorrotuko, sasoi pasatu zait eta.



Jaione Lazpiur
Ikaslea
(11 urte)

Giroa ona izaten da baina hobetzeko ikastolan jai eman beharko ligukete. Aurten zingaraz jantziko naiz.




Amagoia San Julian
Umezaintzailea
(18 urte)

Giroa? Ederra. Haratuzteak hobetzeko eguraldia aldatuko nuke. Aurten ere mozorrotuko naiz, baina ez dut esango zertaz, sorpresa!

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxes: 79 13 84

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdia)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 16
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

Larunbata 17
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Igandea 18
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Astelehena 19
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerias.

Asteartea 20
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Asteazkena 21
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Osteguna 22
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

16 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Malicia" 7etan eta 10etan.
- **ARKITEKTURAK ARRASATEAN ERAKUSKETA**
 Arratsaldeko 6etan "Arkitekturak Arrasaten" eraskusketaren inaugurazioa Harresi aretoan.
- **AUKEA SARIAK**
 Arratsaldeko 7etan Aukea sariak banatuko dira Pleno Aretoan.
- **HARATUZTE KONTZERTUA**
 Arrasate Musikaleko areto nagusian arratsaldeko 6etan. Arrasate Musikalek antolatuta
- **EAREN HITZALDIA**
 Monterronen arratsaldeko 8etan. Hizlariak: Begoña Lasagabaster, Inaxio Oliveri eta Karlos Garaikoetxea.
- **KONTZERTUA ATERPEN**
 "Sanchis y Jocano" taldearen kontzertua Aterpe tabernan gaueko 10.30etan. Sarrera dohainik.
- **HIESARI BURUZKO HITZALDIA ARETXABALETAN**
 Loramendi elkarteko soloik-solo taldeak antolatuta Hiesari buruzko hitzaldia Loramendiren lokalean arratsaldeko 7etan. Hitzaldia Arrasateko Hies Ekimena taldekoek emango dute.

17 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "La isla de las cabezas cortadas" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **HARATUZTEETAKO PLAY BACK JAIALDIA**
 Play Back jaialdia arratsaldeko 7etan eta gaueko 10.30etan Amaia antzokian.

18 IGANDEA

- **ZINEA**
 "La isla de las cabezas cortadas" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **HARATUZTEAK**
 Arratsaldeko 7etan Txinparta eta Boston taldeekin dantzaldia Sebero Altube plazan. 8.30etan Zezen suzkoa.



GERIATRIA ETA PSIKOLOGIA IKASTAROAK

Geriatria ikastaroa otsailaren 19an hasiko da. Astelehen eta ostegunetan goizeko 9.30etatik 11.30ak arte. Psikologia ikastaroa otsailaren 20an hasiko da. 20 orduko iraupena. Astearte eta ostegunetan emango dira klaseak arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte. Famili eta Gizarte heziketarako zentruak antolatuta. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira.

MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Otsailaren 25an Azpeitia, Izarraitz, Azkarate eta Elosura joango dira. Irteera goizeko 7etan Garibaitik. Izenematea otsailaren 20, 21 eta 22an, 7.30etatik 8.30etara Besaidereen egoitzan.

LITERATUR LESBIKOAREN LEHEN LEHIAKETA

Lumatzak Lesbianen kolektiboak Literatur Lesbikoaren lehen lehiaketa antolatu du. Helburua emakumeek idatzitako literatura piztea eta hedatzea. Idazlanak emakumeak idatzitakoak izan beharko dira. Idazlanak lesbianismoarekin lotutako bizipenak, sentimenduak, fantasiak aipatuko ditu. Saria 15.000 pezatakoa izango da. Lanak 1.177 postakutxatilara (31.015 Iruñea) bidali beharko dira otsailaren 20a baino lehen.

19 ASTELEHENA

• ZINEA

"La isla de las cabezas cortadas"
7etan eta 9.30etan

20 ASTEARTEA

• ZINEA

"La isla de las cabezas cortadas"
7etan eta 9.30etan.

• HARATUZTEAK

Arratsaldeko 5etan Txufflo, Pampolina eta Txukito pailazoan emanaldia Sebero Altube plazan eta Samasiku txarangaren irteera. 6etan Auskalo hankapalo taldearen emanaldia Herriko plazan. 7etan Arrasateko erraldoi eta kilikien kalejira dultzainariak lagunduta. 8etatik 9ak arte Aquarium Show orkestrarekin dantzaldia

Gaueko 10.30etatik goizaldeko 2ak arte dantzaldia Aquarium Show orkestrarekin Herriko plazan. Gaueko 11etatik goizaldeko 2ak arte Haratuzte musika Samasiku txarangarekin kaleetan zehar. 11.30etan sardinaren hilketak Herriko plazan 12.30etan Mozorro lehiaketaren sari banaketa.

HARATUZTEETAKO ARGAZKI RALLYA

Gaia: Arrasateko 1.996ko Haratuzteekin lotuta dagoen edozein argazkik balioko du. Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar. Otsailaren 16an eta 17an, Imagen, Oain, Ikatx eta Epelde argazki denda kolaboratzaileetan jaso ahal izango dira karreteak. Jasotako argazki-dendatan entregatu beharko da karretea otsailaren 21ean. Aurkezten diren argazkiekin ASA elkarteak erakusketa bat jarriko du Monterronen otsailaren 29an. Sari banaketa otsailaren 29an izango da Monterronen arratsaldeko 7etan.

II. EMAKUMEEN FUTBITO TXAPELKETA

Martxotik aurrera zapatu goizetan San Viator txikin. AEDk antolatuta. Izenematea 5.000 pta. Martxoaren 23an txapelketari buruzko argitasunak emateko bilera izango dute partehartzaileek AEDn arratsaldeko 6.30etan. Informazio gehiagorako dei egin 77 12 28 tfnora.

21 ASTEAZKENA

• HITZALDIA S.F. XABIER IKAS-
TOLAK ANTOLATUTA

Gaia: "Nola estimulatu gure seme/alabak". Hizlaria: Mireia Arregi, logopeda, haur hezkuntzan aditua. El Ferial ikastolan arratsaldeko 6etan.

22 OSTEKUNA

• HITZALDIA S. F. XABIER
IKASTOLAK ANTOLATUTA

Hitzaldiak bi zati izango ditu: A) Euskal Herriko eta Gipuzkoako ikuspegi globala. Hizlaria: Karmelo Urdangarin. Danobat elkarteko idazkari orokorra. B) Deba Garaiko Plan estrategikoa. Hizlaria: Koldo Azkoitia, Mankomunitateko Zerbitzuen zuzendaria. O.H.Oko 7., 8. eta REMeko ikasleen gurasoei zuzenduta. Gazteluondoko ikastolan arratsaldeko 6etan.



ANTZERKI TAILERRA

Otsailaren 24an antzerki tailerra jarriko du abian AEDk. Arduraduna Jose Martin Urrutia antzezlea izango da. Landuko duten antzezlanak "Nueva Zaragozako herritarrak". Hamasei urte baino gehiago duen edozeinek har dezake parte. Matrikula: 5.000 pta, AEDko bazkideentzat 4.500 pta eta 2.000 ikasle eta langabeentzat. Interesatuok lehenbailehen pasa AEDtik edo deitu 77 12 28 zenbakira.

“Euskarazko kazetagintzak behin-betiko bultzada 80ko hamarkadaren amaieran (1988-90) izan zuen. 1988an Arrasate Press astekaria jaio zen. Haren ondotik, hamarnaka astekari eta hilabetekari plazaratu dira, han eta hemen, herri haundi zein txikietan”.

Txema Ramirez, 1996-2-6.

Egunkaria

“80ko hamarkadan inbertsio garrantzitsua egn zen eta instalazio oso berriak sortu ziren Aita Mennin. Ospital barruan eta kanpoan zerbitzu berriak ireki dira diru honi esker: eguneko ospitalea Arrasaten, gaixoentzako sei etxebizitza Arrasaten, egonaldi erdiko unitate bat eta burmuinean jasandako kalteak tratatzeko beste unitate bat besteak beste.

Aurten egiteko berrikuntzak ere badituzte eskuartean: maiatza eta ekaina bitartean, Euskal Herriko gaztetxoentzako lehen ospitalizazio psikiatriko zerbitzua zabalduko dute.

(...)

Bataz besteko adina asko igotzen ari dela da eritetxe honen arazoetariko bat, eta hau dela eta psikogeriatriari zuzendutako zati berria egin behar izan dute. Hau da eritetxe honen behar garrantzitsuenetariko bat”.

Ainhoa Gerra, 1996-2-4.

ARGIA

“IPARLATEko bideragarritasun plangintza aintzakotzat harturik, beharrezkotzat jo dute LESAren erosketa. Beldurra eta zalantza: atek zabalik daude edozer gauza, onartu gabe ere, hartzeko. Esneduna esne produktorea izateaz gain esne horren jabea da, edo izan beharko luke, eta hori da aldarrikatu beharrekoa. Antolaketatik dator garapena”.

Jon Zuazabeitia, 1996-2-4.


ARGIA

Zer moduzko hitzaldiak izan dituzue entzungai?

Eusko Jaurlearitzak antolatuta, joan den astean hitzaldiak eta tailerrak izan ziren Monterronen Arrasateko jubilatuekiko. Lehen hitzaldia elikadura eta osasunari buruzkoa izan zen, eta bigarrena kontsumitzaileen eskubideen ingurukoa. Hitzaldiak entzun ondoren, berriz, gai horien gainean egin ziren tailerretan parte hartzeko aukera izan genuen.

Jende asko hurbildu zen ekintzetara, nahiz eta gehienak beti joaten direnak izan. Hitzaldietan 50 lagun izan ginen eta tailerretan 25, gehiagorendako tokia ez zegoen eta. Kalitateari dagokionez, berriz, gaiak benetan proposak izan ziren eta hizlariak oso onak. Egia esan, hitzaldiak irauten zituen bi orduak motz geratzen ziren. Bestalde, tailerrak ere egokiak izan ziren, entzundakoa praktikan jartzeko aukera izan genuelako. Martxoaren 12an, gainera, hitzaldietan parte hartu dugunok bidaia bat egingo dugu Gueñes-eko lantegi batzuetara, garbiketarako erabiltzen ditugun produktuak zelan egiten diren jakiteko.

Nahi genuke aurrerantzean ere horrelako hitzaldiak izatea, horregatik, Eusko Jaurlearitzara eta Diputaziora eskutitzak bidali ditugu, zerbait antolatzen badute horren berri eman diezagutela eskatuz.



Bixente Azkarate

Jubilatu etxeetako bozeramalea



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Istiluak

Zapatu goizaldean istiluak izan ziren Uribarri Etorbidean hiru pertsonen artean. Istiluetan parte hartu zutenetarikoa bat etxera joan eta eskopetarekin agertu zen berriz ere. Zorionez ez zen ezer larririk gertatu, baina badaezpada besteek abisua eman zioten Ertzantzari.


Ertzantza A.V. C. arrasatearraren etxera joan eta bertan zituen hiru eskopetak kendu zizkion.

Balleta zoragarria

600 lagun inguru bildu ziren Amaia antzokian, Pragako Ganbarak zapa-tuan eskaini zuen ballet emanaldia ikusteko. Balleta klasikoa izan arren, koreografia modernoak dantzatu zituzten eta ikusleak pozik atera ziren.

Atxiloketak

Istripua izan eta ondoren egindako alkoholemia frogan positibo eman zuelako, zapatu goizaldean JB. B. U. arrasatearra atxilotu zuen Ertzantzak Aretxabaletan. Atestatua



Alternatiba demokratikoa aurkeztu

Arnaldo Otegik, mahai nazionalako kideak, alternatiba demokratikoa zertan den azaldu zuen domeka arratsaldean. Jende asko hurbildu zen Amaia antzokira, HBko kidearen azalpenak entzun eta ETA taldeak bidalitako bideoa ikustera.

Ekitaldi hori bukatutakoan presoen aldeko manifestazioa burutu zen herriko kaleetan zehar. Eskualdeko manifestazioa zela eta, ehundaka lagunek parte hartu zuten.

egin ondoren zapatu goizean aske utzi zuten.

Horrez gain, R.L.R. arrasatearra ere atxilotu zuen Ertzantzak istripua gertatu zen toki berean. Ertzantzaren arabera, Ertzainen aurkako irainak jaurtitzen hasi zen eta ertzain bat hurbildu zitzaionean ukabilkada bat eman zion. Zapatu arratsaldean aske utzi zuten azken hori ere.

Pintadak azaldu

Fernando Herzogen hilketa gaitzesteko ostegunean greba egin zuten Institutoko ikasleek. Bozketan 470 ikasle greba egitearen alde azaldu ziren, 90 kontra eta 60k zuri bozkatu zuten.

Greba deitu zuena Sozialista Gazteen taldeko ordezkari bat izan zela eta, gazte horren kontrako

pintadak agertu ziren astebukaeran. Gaztearen etxe aurrean eta Institutoko gimnasioan azaldu ziren pintadak.

Istripuz hil

Astelehenean, arratsaldean, 76 urteko gizon bat hil zen furgoneta batek harrapatuta. Istripua Musakola inguruan gertatu zen, F.H.S. errepidea gurutzatzera zihoanean. Eskualde Ospitalera eraman zutenerako hilda zegoen arrasatearra.

JAIOTZAK

- Igor Zubizarreta Montero. Urtarrilaren 26an.
- Mikel Bolinaga Ayastui. 31n.
- Gorka Fernandez Diez. Otsailaren 2an.

HILDAKOAK

- Jose Duinat Aginagalde. Urtarrilaren 30ean. 64 urte.
- Ignacio Zuazabeitia Errasti. 74 urte.
- Salome Aldazabal Luri. 2an. 70 urte.
- Lidia Pinto Garcia. 5ean. 93an.
- Joseba Agiriano Zubia. 10ean. 65 urte.



Kalitate gorena leihoetan.


LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



ORAIN ORDUTEGI BERRIA!

Lanegutengan goizeko 10.30 etan eta jaiegunetan eguerdiko 12etan zabaltzen dugu!



* Fernando Aguriondo

AUKEA sariak zortzi urte

1 988. urtean, Arrasateko historian lehen aldiz, herriko bi kirolarik, Antonio Caballerok (boxeoan) eta Rafa Axpek (tiroan), Seulgo Olinpiadetan parte hartu zutela aprobe-txatuz, AUKEAko Zuzendaritza Batzordean denboraldi bakoitzean kirolariak egindako ahaleginak eta lorpenak azpimarratzeko sari batzuk instituzionalizatzea erabaki zen, beste toki eta maila batzuetan egiten ari zen bezala (probintzian, autonomi elkartean...).

Era berean orduan pentsatu zen herriko kirol taldeek elkarrekin egindako aha-legina nolabait saritu beharra zegoela, horrela erabaki

zen urtean zehar edo denboraldian kirol emaitza onenak erdietsitako taldeari ere sari bat eskaintzea, lehen urte hartan Arrasate Atletiko Taldeari eman zitzaion.

Beranduago gainera mahai gainean jarri zen AUKEA sariak emateaz gain

.....
“Sari hauek balio izan dute arrasatearrek ondo ezagutu dezaten kirolari taldeek urtero egiten duten lana”

(bakarkakoak zein talde mailakoak), beren bizitza osoan zehar gure herrian kirolaren alde egindako lana eskertzea nolabait erakundeei edo pertsonari. Era horretan, 1991. urtean ohorezko aipamen plaka ematen hasi ginen, lehen urte horretan Zaldibarko Futbol Txapelketako antolatzaile taldeari eskaini zitzaion.

Ikusten denez, dagoeneko 8 urte pasatu dira AUKEA sariaren banaketa hasi zenetik, eta nire ustez sari hauek balio izan dute arrasatearrek ondo ezagutu dezaten herriko kirolari eta taldeek urtero egiten duten lana.

* AUKEAko kirol teknikaria

USTEAK USTE

“BIZITZA” ZIGORRA

Aste batzuk badira egunkarrietan irakurri genuela, EEBB-an bi gizonen heriotz zigorra burutu zela. Erahildakoei bizirik iraun nahi omen zuten, eta horretarako, elegiteak, errugabetasunaren aldarrikapenak... denetarik egin omen zuten, baina dena alperrik, legea bete behar zen.

Egun batzuk lehen- txoago beste honako berri hau irakurri ahal izan genuen: EEBB-aren ere, emakume bati heriotz zigorra ezarri, baina honek, lehenbait lehen bete zezaten eskatu zuen: ez zuen elegiterik nahi, ez zuen barkamenik eskatu... gizarte honek eskaini ziona “dastatu” ondoren, bertan jarraitzerik ez zuela merezi erabaki zuen. Orduan ardurak! orduan arazoak! zigorra betetzea suizidioa ote zen, eta hori ez zela legezkoa... (terrible!), eta azkenean EEBBko “demokratiak” bizitza “barkatu” dio eta kartzelan usteltzeko aukera besterik ez diote utzi.

Zigor guztiek dute mendeku arrastoa, eta benetan zigor eta mendeku izan dadin, jasatzen duenak sufritu beharra dauka, horregatik ezin du botereak Genevieve-ren “bihurrikeria” ametittu, heriotz hori onartu, (bere nahiez hartutako erabaki bakarra, agian)... Zein ote da, zure “ezeren” jabe ez zarela garbi utzi behar hori?

NEKANE SAN MIGUEL

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikar erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa / FAX: 79 01 82

Altzariak Diseinua Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07


BIKAIN

Arrakastaz gainditu dugu
azterketarik zailena.

Zentroak irakaskuntzan duen esperientzia,
baloreen eskaintza,
pertonaren hezkuntza bere osotasunean,
euskal kultura eta hizkuntzaren aldeko apostua,
aditasun pertsonalizatua,
irakaslegoaren hautaketa egokia ...

merezi izan dugun eskertza eman digute
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Zuen seme-alabei eman diezaiokezuen
aukerarik hoberena.



la merced
IKASTETXEA

HAUR HEZKUNTZA • LEHEN HEZKUNTZA • DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

2tik 16 urtera

Tfnoa. 79 27 72 • 79 20 92 Faxa

Eskualdeak zaborren irtenbidea inguruko mankomunitateetan

Abenduaren leian AKEI-ko erraustegia itxi egingo denez, ordutik aurrera zaborrekin zer egin pentsatzen ari da Deba Garaiko Mankomunitatea. German Bereziabar, Mankomunitateko gerentek esan bezala, "abendua ate joka dagoenez, epe motzera zaborrak inguruko mankomuniteren bateko isurtegitira eramatea da irtenbidea. Oraindik ez gara harremanetan jarri, baina ditugun garraioak erabiliz eta ahal den eta diru gutxien gastatuz, zaborrak Sasieta edo inguruko beste isurtegitiren batera eramatea da asmoa. Ikusi egin behar nork onartzen gaituen".

Hondakin solidoak gaitzat harturik joan den astean Zumarragan egin ziren jardunaldietan, Mankomunitateko arduradunek garbi utzi zuten zaborrak errausteko planta egitea erabakitzen bada, proiektuak guztiendako kostu bera izan behar duela. German Bereziabarren esanetan, "errausteko planta Donostia inguruan egingo



Deba Garaiko zaborrak nora eraman erabaki beharko da.

litzatekeenez gure bailarari urruti geratuko litzaioke, baina zaborrak hara eramatearren ez dugu guk zertan gehiago ordaindu behar. Bertintasan bat egon beharko da. Horregatik, garraioaren arazoa ere proiektuaren

aurrekontuan sartzea eskatu dugu".

Bestalde, birziklapenarekin jarraitzeko asmoa ere badu Mankomunitateak, eta aurren Tetra-bric-ak eta plastikoa uzteko edukiontzia jarriko dira.


Arrasaten 936 lanik gabe

INEM enplegu bulegoak kaleratu dituen azken datuen arabera, Arrasaten 936 lagun zeuden langabezian. Kopuru horretatik, hirutik bi emakumeak dira eta gehienak, gainera, erdi edo goi mailako titulaziorik ez duten gazteak.

Datuak abenduaren 31koak dira eta 95ean jasotako datuekin konparatuta, esaniaz langabeziak behera egin zuela.

Fagor Ederlani espedientea zabaldu

Udalak espediente zehatzaile ireki dio Garagartzako Fagor Ederlani, azaroaren 23an isuri zuen kea dela eta. Ke beltza isuri zenetik azalpen batzuk eman dituzte Fagor Ederlanekoek, baina Udalak badaezpada espediente zabaltea erabaki du. Espedientearekin erantzunik dagoen jakingo da, eta ez badago artxibatu egingo da. Espedientearen inguruan alegazioak aurkezteko aukera izango du Fagorrekin.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Negu garaian aurrekontuak izoztu

Arrasateko Emakume taldeek joan den astelehenean jakinarazi zutenenez, "96ko aurrekontuak izoztea da EAJ, PSE-EE eta EAren asmoa". Ekin, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentroa, Egizan eta Emakumeen Asanbladak prentsaurrekoan esandakoaren arabera, "ohiko ekin-tzetarako dirulaguntzak ez gehitzea eta iaizko laguntza berdinak ematea erabaki dute aipatutako hiru alderdiek. Horrela egiten badute Emakumearen Batzordearen funtzioa kolokan geratuko da, eta horregatik, gure kasuan salbuespen bat egitea eskatzen diegu". Zerbitzu batzuk antolatzen hasteko, gutxienez 10.650.000 pta. ematea eskatu zuten emakume taldeek.

Blanca Roncal, PSE-EEko zinegotziaren esanetan, "aurrekontuak izoztea proposatu dugu, baina kasu guztietan ezingo dugu hori egin. Laguntzak ez gehitzearena gai batzuetan aztertu egin beharko da, eta Emakumearen Batzordearena horietako bat da". Zinegotzi sozialistaren berbetan, "kontuan izan behar da Udalak duen zorra nahiko handia dela eta beraz, ezin dira laguntzak gehitu". Aurrekontuak finkatzerakoan beste gai batzueri eman nahi die lehentasuna sozialistek, "irailean derrigorrezko bigarren hezkuntza abian jarriko denez, eskola publikoei



Emakume taldeek azaroan egindako topaketetan ateratako argazkia.

laguntza berezia ematea proposatu dugu. Bestalde, lurzoru industrialak eskaini asmoz industriari hainbat inbertsio egin beharko da".

Isabel Gallastegi, EAko zinegotziak adierazi duenez, "aurrekontuak izoztea da ideia baina emakumeen batzordea sortu berria denez, kasu hori berezia izango da". Gallastegiren berbetan, Arrasateko EAK industriaren aldeko apostua egin nahi du, eta horregatik, "industriarako fondo bat sortu eta urtero gai horrendako 100 milioi ematea proposatu dugu".

J.M. Loiti, EAJko zinegotziaren berbetan ere, "orokorrean laguntzak ez igotzea erabaki dugu, baina kasu batzuetan bereizketak egin

beharko direla garbi utzi genuen". Zinegotzi jeltzalearen arabera, "aurrekontu orekatuak egiten saiatuko gara, baina apostua etxeak egiteko eta industriak erakartzeko lurzorua prestatzea da. Momentu honetan talderen batek herrian lantegi bat jartzea pentsatzen badu, itxaron egin beharra dauka eta horregatik, askok beste nonbait jartzea erabakitzen dute. Ezin dugu hori onartu". Loitiren esanetan, sarreren eta gastu arruntan aldea gutxituz doa eta horrek erakusten du Udalaren inbertsio ahalmen urria.

Ino Galparsoro, Hazien da Batzordeburuaren ustez, "ez da logikoa aurrekontuen izoztea proposatzea, aurreko bi urteetan ere laguntzak ez ziren gehitu eta. Gastu arrun-

tak zaindu egin behar dira, baina aurten Kontsumorako Prezioen Indizearen arabera igo beharko lirateke laguntzak ere". HBko zinegotziaren iritziz, beharrezkoa da sortu berri den Emakumearen Batzordeari laguntza egokia ematea.

Ezker Batuko Angel Tijerok adierazi duenez, "orokorrean ez dugu begi onez ikusten aurrekontuak ez igotzea. Kasu batzutan ados egon gaitzake ez gehitzearekin, baina laguntza batzuk igoera izan beharko lukete". Tijeroren iritziz, Emakumearen Batzordeari laguntza egokia eman behar zaio, eta hirugarren munduaren alde lan egiten duten taldeendako ere dirulaguntza handiagoa proposatu dugu.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

LAN BILA
Baimen ZK. 79/0064/95

LAN BILA, ETT-ek
premiazkoak ditu:

30 Montadore-Ajustadore (Ofizialak)

- Enpresa nabarmenean lan egiteko.
- Apiriletik aurrera.
- Kontratuaren iraupena: 6 hilabete gutxienez.
- Lansari polita.

Interesatuak dei egin 79 83 95 tfnora. edo azaldu Zaitegi Enparantzan, 5 ARRASATE

**BASABE
JATETXEA**


Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA



Gesalibarko jaiak eguraldi hotzez baina giro beroaz ospatu dira asteburuan. Ondo pasatzeko denetik egon da, baina batez ere auzotarrek jaietako hiru egunetan izan duten umore ona aipatu behar. Egia esateko jaiak urtean behin izaten dira eta ondo aprobetxatzea da onena.



Haratuzteei bukaera emateko martizenean erreko den **sardina gertu dago** dagoeneko. Santos Zeziaga, Sebastian Arejolaleiba eta Bixente Eritz izan dira egileak. Hiru lagun hauek urte mordo daramatzate lan hori betetzen, Santosek bederati, Bixentek bost eta Sebastianek hiru. 96eko haratuzteetako sardinak bost metro térdiko luzera

du; egurrez egin dago eta 55 listoi daramatza. Sardinenaren kanpoaldea apaintzeko, hau da, eskamak jartzeko, 240 kartulina erabili dituzte. Sardina egitea arte lana bihurtu da eta egileek pazientzia eta maitasun handiz ahalik eta txukunen jartzeko orduak eta orduak sartzen dituzte. Azkeneko emaitza ikusita merezi du lan horrek, bai horixe!

Aste honetan ez dira bisitak falta gurean. Astelehenean **Almen ikastolako neska mutil mordo** etorri zen ARRASATE PRESS eta Telebista gertutik ezagutzera. Ikasleek adi adi entzun zituzten azalpenak eta galderak egiteko aukera ere izan zuten. Martizenean bestalde, **Getxoko Bizkarra lepoan aldizkaritik** Josu, Bertxo eta Josi izan genituen bisitari. Eurek ere aldizkari bat dute eta besteok lana nola egiten dugun ikus-tea oso aberasgarria izan zaiela esan ziguten.



Josefina Aperribai arrasatearrak urrezko eztaiak bete ditu lekaima. 20 urterekin joan zen lekaima Josefina eta urte hauek guztiak Lasar-teko Brigiden klausurako komentuan eman ditu. 50 urteak ospatzeko senitartekoekin izan zuen bazkaria. Josefina Aperribaik beste bi ahizpa eta bost anai ditu.



Uribarriko jubilatuek 84 urtetik gorako **aitonamonek omenaldi** berezia jaso zuten martizenean. Arratsaldeko 5.30etan bildutako 13 emakume eta 8 gizonen merienda goxoa jateko aukera izan zuten eta baita opari bana jasotzeko ere. Dena dela, bertan bildutakoak ez dira Uribarrin dauden 84 urtetik gorako jubilatuek bakarrik, bai ordea horrelako ekintzetara joateko sasoiak daudenak. Zorionak guztiei!

IZEN PROPIOAK

● **Esti Loiti** 26 urte arrasatearra Txatxilipurdik Santamain duen Ludotekako dinamizaille berria da. Aurretik Iban Astondoa aramaiotarra aritu zen lan horretan. Esti Mondra taldeko jokalaria da eta ATBko Mondrasport kirol saioa aurkezten du.



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxe: 77 11 20
ARRASATE

DISCO-BAR



Disco-Bar Gurelekuk haratuzteko aste-bukaera zoriontsua pasatzera gonbidatzen zaitu.


Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tfnoa: 79 20 29

ESLU
ileapaindegia


Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

Etxean jasotzen duzun publizitatearen hizkuntz erabilera

1994-95ean Arrasateko entitateek bidalitako publizitatea




1994-95ean jasotako publizitatea




Idatzitako komunikabideetan hizkuntz erabilera Arrasateko berrietan

1994




1995



Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Hamaboskarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Iban Peñakoba eta Asier Oroiz.*
- *Taldeen aurkezpena: No Comment, Kakajauri, Uglys Txinato eta Elizabeth.*



Ezusteko handi barik jokatu da 15. ihardunaldia. Emaitei begira ez da sorpresarik egon eta berriro talde sendoenek erakutsi dute zergatik dauden hor goian. Datorren asteburuan lehen faseko azken aurreko ihardunaldia jokatu da, talde askorentzat erabakiorra.

Multzoz multzo gainbegirada emanez, A taldean dagoeneko lau talde daude matematikoki sailkatuta. B taldean hiru, En beste hiru eta azken taldean 7, postu bakarra dago jokuan.

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

“EDERTU”
ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

Lore

Lurrindegia

Olarte kalaa, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Frantziskanner	15	12	2	1	70	34	26
Orlando Piratas	15	12	0	3	87	43	24
Argi ibili	15	11	1	3	102	37	23
Sokoakoak	15	9	3	3	88	50	21
Kamasutra	15	8	4	3	66	35	20
Totem	15	9	2	4	70	48	20
Arrasate Kirolak	15	9	2	4	47	46	20
Sortu Informatika	15	8	3	4	68	62	19
D.Alriztu	15	8	1	6	77	51	17
Jotakabau	15	7	3	5	61	51	17
Kakajauri	15	6	2	7	47	49	14
Bukanak	15	5	3	7	66	52	13
Uglys Txinato	15	3	4	8	47	70	10
Alealee	15	3	1	11	36	100	7
Gaztetxokoa	15	3	1	11	36	108	7
Gualtrapas	15	3	0	12	45	88	6
Toss Tehaman	15	2	1	12	20	92	5
Tronkoteak	15	0	1	14	2	20	1

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	15	13	1	1	78	40	27
Txeyenex	15	13	1	1	64	28	27
Adelaida Haizea	15	11	1	3	76	28	23
AC Surcos	15	10	1	4	71	46	21
Hirei	15	10	0	5	61	37	20
Okoretegi Taber.	15	9	2	4	50	26	20
Los heredia	15	9	2	4	40	31	20
Lorategi	15	9	1	5	44	38	19
DKB	15	9	0	6	58	50	18
Ojo Avisore	15	6	3	6	53	49	15
6. Proiektua	15	6	2	7	37	44	14
Altza Porru	15	4	1	10	30	42	9
Fraguel gol	15	4	1	10	37	54	9
Aizpun Bila	15	3	2	10	16	32	8
Kopyprest	15	3	1	11	37	102	7
Berango sukald.	15	3	0	12	32	47	6
Kirten Tropel	15	2	0	13	22	66	4
Los Dalton	15	1	1	13	42	96	3

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 3 - Uglys Txinato 7
Kamasutra 3 - Sokoakoak 3
Gualtrapas 2 - Sortu Informatika
Gaztetxokoa 3 - Bukanak 3
Toss Tehaman 0 - Frantziskanner 1
Arrasate Kirolak 3 - Totem 6
Argi Ibili 4 - D.A Iriztu 3
Orlando Piratas 3 - Jotakabau 5
Tronkoteak 0 - Alealee 1

B Taldea

Los heredia 4 - Los Dalton 2
DKB 2 - Okoretegi Taberna 6
Kirten Tropel 0 - Hirei 5
Aizpun Bila 0 - Berango Sukaldeak 1
Fraguel gol 2 - Lorategi 3
AC Surcos 16 - Kopyprest 4
Ojo Avisore 2 - Adelaida Haizea 3
Txeyenex 1 - Altza Porru 0
Fosforos 6 - 6ª Proiektua 2

D Taldea

Exc Lete 3 - Koka Juniors 4
Kriskibalda 3 - Cerv. Leintz 4
Leya 4 - Aurrera Bolie 5
Petroleros 1 - Zotz motz 1
MSM In. Int. 7 - Ke Oxtias 1
Pub People 6 - Artzankos Udalaizt 1
Resakas 2 - Danok Lagun 2
Pepelus 7 - Baneuko 3
Cartonajes Igamo 2 - Perrahotsa 7

E Taldea

Const Fercon 0 - Trikiti 11
Lautherbrunnen 1 - Txarokis 0
Irati STS 7 - Potrosorri 4
Los Dimy 5 - Insert Coin 5
Nuevo tab.6 - A ti que te importa 4
No Comment 1 - Borrock Roll 3
Anbotoste 6 - Ganbelas 4
Betrayer 5 - HMKL 0
Elisabeth 1 - Arrasate Zoo 0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
A ti que te importa	15	12	1	2	66	42	25
Irati STS	15	12	0	3	84	36	24
Lautherbrunnen	15	11	2	2	85	45	24
Anbotoste	15	10	2	3	57	33	22
Trikiti	15	9	3	3	65	27	21
Nuevo Taberna	15	9	3	3	80	44	21
Betrayer	15	10	1	4	65	41	21
Insert Coin	15	8	1	6	66	53	17
Ganbelas	15	7	3	5	53	49	17
Borrock Roll	15	8	0	7	57	49	16
Los Dimy	15	6	4	5	39	42	16
Elisabeth	15	3	3	9	26	53	9
No Coment	15	4	0	11	38	64	8
Arrasate Zoo	15	3	2	10	33	52	8
HMKL	15	3	2	10	39	85	8
Potrosorri	15	2	3	10	37	55	7
Txarokis	15	1	1	13	36	72	3
Const Fercon	15	1	1	13	36	120	3

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Aurre Bolie	15	12	2	1	67	37	26
Cerve Leintz	15	11	2	2	60	67	24
Pub People	15	12	0	3	95	44	24
MSM Ing.	15	9	2	4	62	28	20
Zotz Motz	15	8	2	5	53	43	18
Danok lagun	15	7	4	4	52	43	18
Perrahotsa	15	9	0	6	49	42	18
Koka Juniors	15	9	0	6	55	47	18
Artzankos Udalaizt	15	7	3	5	48	42	17
Pepelus	15	7	1	7	57	56	15
Petroleros	15	5	4	6	37	50	14
Exc Lete	15	6	0	9	50	58	12
Leya	15	4	3	8	40	48	11
Ke Oxtias	15	5	0	10	52	60	10
Resakas	15	3	2	10	23	59	8
Cartonajes Igamo	15	3	1	11	50	73	7
Kriskibalda	15	3	0	12	41	68	6
Baneuko	15	2	0	13	39	105	4

Hurrengo partiduak

16. ihardunaldia

Larunbata 17 Zaldibar

8.50 Bukanak - D.A Iriztu
10.00 MSM Ing. Integral - Baneuko
11.00 Los Heredia - Okoretegi Tab.
12.00 Argi Ibili - Orlando Piratas
13.00 Lautherbrunnen - A ti que te importa
14.00 Petroleros - Koka Juniors
15.00 Kriskibalda - Ke Oxtias
17.00 Arrasate Kir. - Sortu inform.
18.00 Ojo Avisore - Txeyenex
19.00 Pup people - Aurrera Bolie

Iturripe A

11.00 Elisabeth - Irati STS
12.00 Cartonajes Igamo - Leya
13.00 AC Surcos - Hirei
14.00 No Comment - Potrosorri
15.00 Exc Lete - Cerveceria Leintz
16.00 Fosforos - Kirten Tropel
17.00 Borrock Roll - Arrasate Zoo
18.00 Totem - Alealee
19.00 Kopyprest - 6ª Proiektua

Iturripe B

14.00 Los Dimy - Trikiti
15.00 Berango Sukald. - Adelaida Haizea
16.00 Artzankos Udalaizt - Perrahotsa
17.00 Kakajauri - Sokoakoak
18.00 Nuevo Taberna - HMKL
19.00 Zotz Motz - Danok Lagun

Igandea 18

Zaldibar

8.50 Gaztetxokoa - Uglys Txinato
10.00 Anbotoste - Betrayer
11.00 Resakas - Pepelus
12.00 Kamasutra - Frantziskaner
13.00 DKB - Lorategi

Protagonista


Asier Oroiz Uglys Txinato

— Nola doakizue lehen fasea?

— Nahiko txarto. A multzoko 13. tokian gaude 10 punturekin. Gaur arte bost partidu bakarrik irabazi ditugu, lau berdindu eta zortzi galdu. Sailkapena ikusita trakets gabiltzala esan behar. Gainera asteburuan ez gara epaitzera aurkeztu eta bi puntu kendu dizkigute. Beraz atera kontuak!

— Multzo zaila tokatu zaizue?

— Talde guztien artean parekotasun handia egon da. Partiduetan bestalde, ez dugu zorterik izan, jarraian neurketa asko galdu ditugu eta gero puntuak errekupeatzea zaila egin zaigu.



— Sekula sailkatu zarete bigarren faseko?

— Orain bi urte sailkatu ginen. Iaz sailkatzeko zorian egon zen taldea baina azken partidu erabakiorra galdu egin genuen.

— Pena ematen du ez sailkatzeak?

— Apur bat bai. Une honetan gainera, aukerarik ez

dugunez jendea ganora gutxierekin dabil. Partiduetara aurkeztu, aurkeztearren egiten gara.

— Antolatzaileek ezartzen dituzten zigorrak ondo daude?

— Baietz uste dut, nahiz eta jendea kexatu. Dena dela, esan behar da arau batzuk ez daudela finkatuta, esatebaterako kornerrak nola atera.

— Azken iskanbilien ondoren hartutako erabakiak nola ikusten dituzu?

— Neurriak hartzeari ondo deritotz eta hartu beharrekoak dira jokua kontrolatu ahal izateko. Zigortzeko orduan dena dela, errua jokalaria batena edo talde osoarena den ikusi behar da. Talde osoak eragina izan badu, kalera. Jokalariren batena izan bada, bera izan beharko litzateke zigortua.

Protagonista

Iban Peñakoba Kakajauri

— Nola ikusten duzue bigarren fasea?

— Gaur azken frogua genuen, irabaziz gero, behar bada itxaropen izpiren bat izan genezakeen baina Uglys txinatoren kontra 3 eta 7 galdu eta gero, agur gure aukerei.

— Zer gertatu zaizue partiduan?

— Gol aukerak izan ditugu, baina aprobeztatzen ez badira ez dago irabazterik.

— Iturripen jokatzeari zailagoa da?

— Zailagoa ez dakit, desberdina. Zaldibarren jokua gehiago dago, baloia ez da irteten. Iturripen berehala doa kanpora, horrek teknika gehiago eskatzen du.



— Azken boladan egon diren iskanbilak zelan ikusten dituzu?

— Txarto, gero eta gehiago moskeatzen da jendea. Nire ustez txapelketak lagun arteko izaera galdu egin du. Orain irabaztea da garrantzitsua eta ez du axola nola irabazten den. Bide hori jakina, arriskutsua bihurtu daiteke, jokalaria, antolatzaile eta txapelketarako.

pelketarako.

— Zergatik dira faboroak betiko taldeak?

— Partidu asko dira eta erregulartasuna behar da txapelketa hasten denetik bukatu arte maila berari eusteko.

— Partiduak asteburuan izatea ondo dago?

— Bai, kirola egiteko aitzaki ona da. Asteazkenean jende askok ez du kirola egiteko aukerarik izaten. Hori dela eta, asteburuak ondo datoz asteko presioak kentzeko.

— Datorren urtean bigarren fasean ziur, ezta?

— Ahal bada bai. Hala ere, gure taldeko kide asko joaten gara eskiatzera. Neguan, futbito baina eskiatzea gehiago gustatzen zaigu. Horrela ezin helburu handirik jarri txapelketan.

Labur

■ **BI PUNTU GUTXIAGO Uglys Txinato eta Excavaciones Lete taldeei bi puntu kendu dizkiete ez zirelako epaitzera aurkeztu. Talde biek ez dute bigarren fasera sailkatzeko aukerarik.**

■ ISKANBILA BERRIRO ERE

Elisabeth eta Arrasate Zoo taldeen arteko neurketan iskanbila egon zen. Antolatzaileek Arrasate Zoo taldeko jokalaria bat zigortzea erabakiko dute. Jose Antonio Garciak bi partiduko zigorra bete beharko du erakutsitako jarraia arriskutsuagatik.

■ NEURKETA ERABAKIORRAK

Astebukaeran partidu interesgarri ugari jokatu da, guztien artean erabakiorrena Insert Coin eta Ganbelasen artekoa. Izan ere, irabazten duen taldeak hurrengo fasera sailkatzeko aukera guztiak izango lituzke. Neurketa Zaldibarren jokatu da arratsaldeko 3etan. 11etan toki berean Los Heredia eta Okoretegi taberna izango dira lehian. 12etan berriz, Argi Ibili eta Orlando Piratas. Iturripen Bn Artzankos Udalaiz, Adelaida Haizea eta Zotz Motz Danok lagun artekoak dira gomen-dagarrienak. Domekan neurketa onena Anbotoste eta Betrayeren artekoa izan daiteke. Dagoeneko sailkatuta daude eta ikuskizun polita erakus dezakete.



No Comment




Kakajauri



Uglys Txinato



Elizabeth



weru®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotzik, ez berorik, ez
soinurik...

● *Agustin Unzurrunzaga*

“Etorkinak legearen menpe daude”

Bergararra da Agustin Unzurrunzaga, Donostian bizi den arren. 1968. urtean, arazo politikoak medio, Frantziara joan zen. Bizi izaten jarri eta gertutik ezagutu zituen herrialde pobreenetatik aberastasun bila joaterakoan arazoak. SOS Arrazakeria taldeko partaide izanik, etorkinei laguntza eman eta konzientziazte lanean aritzen da. Monterronen izan da astean, Langile Komisioak gonbidatuta.

- Nola hasi zinen SOS Arrazakeria taldeko lanean?

- Halabeharrez kanpoan egon naiz denbora dezente, Frantzian gehienbat. Esperiencia hori inportantea izan zen niretzat, etorkinak zein egoera txarrean bizi diren ezagutzeko aukera izan nuelako. Hona etorri eta ez nintzen hortan hasi, baina barneratuta neukan gaia. Gasteizen lanean hasi bulego batean, eta bertara magrebiar ugari joaten zen lan arazoak konpondu nahian. Orduantxe heldu nion berriro inmigrazioaren gaiari. Orain 4 urte inguru Gasteizen bertan SOS Arrazakeria taldea lanean hasi zen, beraiekin harremanetan jarri eta denbora batera Gipuzko-


an antolatu genuen.

- Hiru urte pasa dira ordutik, balantzea ona?

- Denbora honetan lan dezente egin dugu, beraz esan daiteke gaur egun SOS Arrazakeria taldea finkatutako errealitate bat dela Gipuzkoan, batez ere Donostia inguruan. Gipuzkoa osoan oraindik ez dago erata, baina harremanak herri guztiekin dauzkagu.

- Ezer jakin barik etortzen dira? Ez dute hemengo berririk izaten?

- Etorkin izateko bi indar behar izaten dira; alde bate-tik, jaioterritik irteteko nahia eta gogoia edo beharra, arazo ekonomikoak eta politikoak medio edo dena nahasian; bestetik erakargarritasuna. Azken hau erabat beharrezkoa da. Nahiz eta gaizki egon, kanpora begira ez bada ezer hobea ikusten, ez da inor bere tokitik mugitzen. Lehen Espainiatik Alemaniara joaten zen jendeak ere bazuen amets hori, %95ak 5 urteren buruan aberastuta itzultzea espero zuen, baina benetan ez zen ia sekula gertatzen. Gaur egun, antzerako asmoekin etortzen dira, denbora baten buruan zerbait aurreratu eta bueltatzeko intentzioz. Ger-



tatzen da proiektu horiek normalean ez direla betetzen.

- Etorkinei egiten zaien harrera normalean txarra izaten da, ez?

- Bi gauza daude hor, bata legea eta bestea jendea. Gipuzkoan egin diren inkestek adierazten dute jendearen aldetik ez dagoela aparteko kontrako jarrerarik, ideiak bai, baina ekintzak eta jarrerak ez. Legea da etorkinen arazoa, gobernauk horren inguruan sustatzen duen politika, atzeritartasun legea, araudia eta kupoa.

- Horren aurrean elkartasun edo antolamendu gutxi ikusten zaie etorkinei...

- Zailtasun handiak dituzte horretarako, ez dute gaitasunik arazo politiko bat planteiatzeko, baina ondo uler daiteke hori. Lan barik geratzen badira, eta erresi-

dentzia baimena bukatzen bazaie, langabezia kobratzeko aukera galtzen dute, nahiz eta horretarako eskubidea izan. Ez da hori bakarrik, kanporatzeko arriskuan jartzten dira. Labur esanda, bizi-modu osoa hankaz gora botatzea litzateke. Gauzak horrela, nekeza da arazoei aurre egiteko antolatze gaitasuna izatea, horregatik dute bertako taldeen laguntzaren beharra.

- Orain urte batzuk magrebiar bati entzun nion: Euskal Herrian nahiko ondo bizi gara, zeuen arteko gatazkarekin zaudete okupatuta eta. Egia da hori?

- Bai egia da. Etorkinek une hauetan jendearekin ez dute arazo berezirik, hemen ez dago inongo erakunderik etorkinen aurka borrokatzeko, eta hori oso positiboa da noski. Euren arazoa batez ere administrazioa da. Beste kontu bat da Euskal Herrian etorkin gutxi dagoela, Euskal Herriak ez du etorkinentzat eta etorkizunari begira aparteko erakargarritasunik.

● **“Nahiz eta gaizki egon, kanpora begira ez bada ezer hobea ikusten, ez da inor bere tokitik mugitzen”**

Haratuzteak, aspaldiko jaiak

Maria Agirre

Haratuzteak, iñauterriak, karnabalak... Izen ugari jai bera adierazteko, eta jaiak ospatzeko aukerak ere asko.

Arrasaten zapatuan hasten da giroa berotzen. Domekan, berriz, Aretxabaletara joan behar mozorroen giroan jarraitu nahi duenak. Urrutitxo baina astelehenean ere badago aukera: Tolosara joatea. Martitzenean, azkenik, herriko kaleak itxura xeblere edo ezezaguneko jendez betetzen dira.



Aspaldi dela maskarak jazten zituzten haratuzteetan. Argazkian Felix Arenaza eta Frutos Eraña.

Inork ez dezala pentsa, haratuzteak atzoko kontua direnik. Jai zaharrak dira haratuzteak, nahiz eta aspaldi zuten zentzua gaur egun aldatuta egon.

Kristautasunak ezarritako ohituren arabera Garizumak irauten duen 40 egunetan ezin zenez haragirik jan, baraualdi hori iritsi baino lehenago egiten ziren jai egunei deitzen zitzairen haratuzteak, hau da, haragi uztea.

Agustin Azkoagak 80 urtetik gora ditu eta ondo gogoratzen du aspaldi herrian karnabalean izaten zen giroa. Haratuzteak dira Agustini gehien gustatzen zaizkion jaiak. Oroimen gozoak gordetzen dituelako izango da!

MASKAREN GORABEHERAK

Agustinek gogoratzen duenez, mutikoa zela giro galanta izaten zen karnabalean. "Orduan haratuzteak libreak izaten ziren. Denda batzutan maskarak saltzen zituzten, eta "Baratillo" izeneko beste batean disfrazak alokatzen ziren. Jende ugari ateratzen zen mozorrotuta, baina batez ere gazteak. Egun batzuk lehenago, gainera, neska-mutikoak aberatsen etxetara joaten ziren kapela zaharrak eta eskatzera".

Agustinek aitari entzuna zion, aspaldi-aspaldi eguen zuri egunean hasten zirela

"Haratuzteak libreak izaten ziren. Denda batzutan maskarak saltzen zituzten, eta Baratillo izeneko beste batean mozorroak alokatzen ziren"

haratuzteak. Arratsaldean zezena ateratzen ei zen, eta Zerrajerako langile guztiak zezena toreatzera irteten ziren. "Nik ez nuen hori ezagutu. Mutikoa nintzela giro apur bat egoten zen domekan, baina Arrasaten karnabal martitzena izaten zen egun nagusia. Goizean txistulariak ateratzen ziren kalera eta ondoren sokamuturra izaten zen. Arratsaldean aureskua, lehenengo neska-mutikoendako eta ondoren nagusien-dako. Ostean, herriko plazan eta pilotalekuan dantzaldia egoten zen. Martitzenean inor ez zen lanera joaten, eta edurra egin arren jendea kalera irteten zen mozorrotuta. Behin



Agustin Azkoaga.

Musakolako lagun talde bat gurdi eta guzti ijito jantzita azaldu zen herrian, eta astoa-ekin udaletxeko balkoira irten ziren”.

Urte haietan libreak ziren haratuzteek; debekuak ondoren etorri ziren. “1923 arte horrela ospatzen genituen, baina Primo de Riverak estatu kolpea eman zuenean maskarak jartzea debekatu zen. Aurpegia margotzeko aukera zegoen, baina maskarena erabat debekatu zen. Errepublikarekin haratuzteek protagonismo handiagoa hartu zuten arren, hilketak gertatuko zirenen beldurra zegoenez maskaren debekuak jarraitu egin zuen. Francoren garaian, berriz, karnabalak debekatu eta galdu egin ziren. Demokrazia heldu arte ez ziren berriz indartu”.

GARIZUMA ZORROTZ

Haratuzte egunetan juerga galantak bai, baina behin horiek pasatutakoan Garizuma zorrotz jarraitzen zuten lehen. “Eguastenean hauster eguna izaten zen, eta Garizumak irauten zuen bitartean eguakotxero bijilia egiten genuen. Garizuma garaian, gainera, debekatuta zeuden dantzaldiak eta horregatik, hainbat gorabehera gertatu zen herrian. Kontua da herri batzutan *Domingo Piñata* ospatzen zutela, hau da, hurrengo domekan berriz ere karnabalak errepikatzen ziren. Arrasaten ez zen horrelako-



1993an SUDCeko ordezkari batzuk bildu eta haratuzteei indarra eman asmoz Karnabal martitzenean ekintzak antolatzea erabaki zuten.

rik egiten eta 1930ean, *Domingo Piñata* egunez, gazte batzuk manifestazioa egin zuten herrian. Manifestazioan zaramaten pankartan zera irakur zitekeen: “Queremos musica y no montes que es nuestra perdición”. Alkatearen etxe aurrera joan ziren eta 70 urteko alkateak, Resustak, bastoiarekin irten eta pankarta apurtu zuen”.

“Francoren garaian, ni Udaleko zinegotzi nintzela, Garizuman domeketan ere musika jartzea lortu genuen. 1960an izan zen hori. Zinegotzi batzuk ez zeuden ados, baina gehiengoz lortu genuen dantza jartzea. Inguruko herrietan Arrasatek oso irudi txarra eman zuela esan zen orduan”.

SUDCek INDARTU

Haratuzteak legeztatu zirenean, batzuk mozorroa jatzeko ohiturari heldu zioten berriz ere. Ezin esan hala ere aparteko giroa egoten zenik. Lagun taldean ospatzen ziren karnabalak eta herrian ez zen ezer antolatzen.

1983an SUDCeko ordezkari batzuk bildu eta haratuzteei indarra eman asmoz, karnabal martitzenean ekintzak antolatzea erabaki zuten. Erabakia haratuzteak ate joka zeudela hartu zenez, lan handia egin behar izan zuten baina lortutako arrakasta erabatekoa izan zen. Arratsaldean umeen desfilea egin zen, eta ondoren nagusiena. Batean zein bestean jende askok hartu zuen parte eta horrela, jai zaharrok berreskuratu ziren.

Lortutako arrakasta ikusita, 84an ere SUDC elkar-atea arduratu zen karnabal martitzena antolatzeaz. Urte horretan, gainera, ekintza gehiago egin ziren eta arrasatearrek berriz ere harrera ona egin zieten haratuzteei. Horrela jarraitu dute gaur egunera arte. Orain irakurle zure txanda da, zure ustez zelako giroa egoten da haratuzteeetan?

Gaur AUKEAk sariak banatu

Erik Martin, Mondra emakume taldeak eta Fernando Zufiriak jasoko dituzte 1.995eko AUKEA sariak. Erik

Martin azken urteotan karatean lortutako emaitza bikainengatik herriko kirolari onena bezala aukeratu dute. Tal-

dekako saria Juanina Garaiek zuzentzen duen Mondra emakume taldeak jasoko du; hautzat ez da berria Aukea

saria 1.993an ere jaso zuten eta.

Aipamen bereziaren jabe Fernando Zufiria egingo da merezimendu osoz gainera. Fernandok urte mordoia dararatzapean ibilitako neska mutilek poztasun bat baino gehiago eman diote Arrasateko herriari.

Aukea Sariak 1.988an hasi ziren banatzen eta ordutik hona 26 kirolari eta kirol taldek jasote saria.



Mondra emakume taldeak bigarren urtez lortu du AUKEA saria.

AUKEA sariak urtez urte

1988

Antonio Caballero (Boxeo)
Rafael Axpe (tiroa)
Arrasate atletiko taldea

1989

Jose Antonio Gay (Atleta)
AKE Rugby taldea
Aipamen berezia: Ignazio Maizbide (Atletismoa)

1990

Ignazio Maizbide (Jabalina jaurtitzaila)
Arrasate esku baloi taldea

1991

Sonia Chaparro (aletadun igerilaria)
Arrasate Saskibaloit taldea
Aipamen berezia: Zaldibar txapelketako antolatzaileak.

1992

Angel Garcia (halterofilia)
A.K.E Futbol sala
Aipamen berezia: Jose Errasti

1993


Izaskun Iglesias (Gimnasia erritmikoa)
Mondra Futbol taldea
Aipamen berezia: ATB

1994


Gaizka Aranegi (Judoka)
Arrasate saskibaloit taldea
Aipamen berezia: Rosa M^o Otxandiano

1995

Erik Martin (Karateka)
Mondra Emakume taldea
Aipamen berezia: Fernando Zufiria.



Erik Martin, karateka.



Fernando Zufiria, aipamen berezia.

HURT X O A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23

Hilbera kafetegia

Urizarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70


Gaur bizitza zuk gidatzen duzu.



Mégane Coupé



Mégane



Segurtasuna: Gizakian pentsatuz lan eginez.

Angulo-hil gabe eta balazten hirugarren argi batez, hobeto ikusia izan eta ikusteko. Ordenagailuz zuzendutako ABS sistema, gurpilak ez blokeatzeko. Arranke-aurkako sistema elektronikoa eta sartze-aurkako alarma. Istripu baten aurrean 110 milisegundurako protekzio sistema guztiak aktibatzen gaitasuna: programatutako uztarri sistema (Renault-en eskusitza mundiala), airbag, euskarri eta monopropultsoaren blokeoa, aurreko ezker aldeko gurpila gorputzadarrean oinarritzea, mandumahaiaren deformazioa eta azkenik ahalegin mugatzailearen ekintza.

Diseinua: Zure irudimena pizteko gai den linea.

Elipsea da bere perfekzioaren sekretua. Kurbaz osatua: lunetaren linea ozarra, atzeko pilotuen bukaera ur ttantta bat lurruntzerakoan bezala. Haizea hobeto laztantzeko.

Teknologia: Ekologiaren errespetua eta ekonomiarentzat mesede.

16 i 90 zaldidun motore berriak, belaunaldi superdotatua. Gasolinazko 3 bertsioek eta diezelekoak eskakizun guztiak betetzen dituzte. 60 litroko gasolina depositoak autonomia eskaintzen du. Ingurugiroan murgilduz zarataren emisioarentzat dauden arauak (74 dB) betez eta errez birzikla daitezkeen materialak erabiliz.




MECA

6 urtetik 18 urtera arte.

Hezkuntz Proiektu Osoa.

SAN VIATOR IKASTOLA



Matrikula epea
zabalik otsailaren
20ra arte.



Informazio Gehiagorako

Esther Merino
Zuzendari Orokorra

Pilar Askasibar
Lehen Hezkuntzako
Zuzendari Akademikoa
(6-12 urte)

Idoia Urrutia
Bigarren Hezkuntzako
Zuzendari Akademikoa
(12-16 eta 16-18 urte)



Arrasate Pasealekua, 10
ARRASATE • (Gipuzkoa)

Telefona:
79 04 11



Afizionatu mailako taldea.

Afizionatu mailako taldea aurkeztuta

Arrasateko txirrindulari elkartearen baitan sortutako afizionatu mailako taldeak erronka berri bati egin behar dio aurre aurtengo denboraldian. Helburu zehatzik gabe baina ilusio handiz taldeko txirrindulariak pedalei eragiteko buru belarri ari dira prestatzen. Lehen lasterketa martxoaren 3an izango dute Atarrabian eta uda arte lasterketaz lasterketa ibiliko dira

taldea osatzen duten 16 txirrindulariak. Josu Estevez eta Eneko Garaien gidaritzapean zer egin eta noraino heltzeko gauza diren erakutsiko dute afizionatu mailako talde berri horretan. Txirrindularien artean zazpik badute nolabaiteko esperientzia afizionatuetan, iaz ere bertan ibilitakoak dira eta. Gai nontzekoentzat maila berria izango da.

Urbina Maltzaga Iturripen

Urbina Maltzagak Ponferradaren bisita jasoko du haratuzte domekan Iturripen. Partidua ez da beti bezala arratsaldean jokatu, eguerdiko 12etan baizik. Horren arrazoia Taugres Basconiak arratsaldean jokatu behar duela eta ezaguna den bertan Arrasateko jokalaririk ez izango dira. Ponferrada taldeak erraz irabazteko moduko taldea dirudi. Izan ere, sailkapeneko 13. tokian dago 31 punturekin eta gaur arte zortzi neurketa baino ez ditu irabazi, galdu berriz 15. Urbina Maltzagak azken boladan hiru garaipen jarraian lortu ditu beraz, laugarrena 24. ihardunaldian etor daiteke gauzak bide onetik badoaz. Samaniegok ez du bajarik izango neurketarako. Asteazkenean zehar, normaltasunez entrenatu dute taldeko jokalariek eta sasoiaren daudela argi utzi

dute. Lehen bueltan Ponferradan kontra jokatu zutenean Arrasateko ordezkariak irabazi egin zuten 82 eta 91.

Eskubaloikoek neurketa zaila

Arrasate eskubaloiko taldeak Hondarribia izango du arerio zapatuan arratsaldeko 6etan Iturripen. Joan zen astean Herreroen mutilek denboraldiko lehen garaipena lortu zuten eta ilusioz gainezka egongo dira bigarrena lortzeko. Dena dela, aurrean izango duen taldea ez da nolana hikoia izango. Hondarribitarrek 5. tokian daude 15 punturekin. Talde sendoa da eta azkar jokatzeko du, Bidasako harrobiko jendea dago bertan eta teknikoki hain ondo ez badabilta ere, azkartasunean eta indarrean oinarritzen dute jokua. Beraz arrasatearrek lana izango dute jokoaren erritmoa ezarri eta partidua aurrera ateratzeko.



Krosean ondo arrasatearrak

A badiñon burututako Euskadiko kross txapelketan hainbat arrasatearrek hartu zuten parte. Arrasateko atletismo taldeko ordezkari bakarra izan zen Jabier Mentxaka eta 12 kilometroko ibilbidea 51. postuan bukatu zuen. Bestalde, Frantzisko Andres, Jose Galan eta Jose Primoi ere bertan izan ziren beterrano mailan. Hauek arrasatearrak badira ere, Gasteizko Cafes el Abra taldeko koloreak defendatzen dituzte. Francisco Andres beterrano mailan 6. tokian sailkatu zen, Jose Galan berriz, 33.ean. Datorren domekan Francisco Andresek lurreko krosean hartuko du parte.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

**PUB
HAIZEA**



Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Besarka gaitezen Folleville!

EUGENE
LABICHEren
"vodevil" bat

ORAIN
antzerki taldea



Aktoreak:

IÑAKE IRASTORZA

NIKO LIZEAGA

Zorion Egileor

Asier Hormaza

Fernando Mikelajauregi

Jokin Conde

Zuzendaria

ENRIQUE DIAZ DE RADA

Amaia Antzokian
Otsailaren 24ean, larunbata
Gaueko 10.30etan
Sarrera: 800 pta.
(GazteTxartelarekin 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hirurogei lagunek parte hartuko dute VII. Play Back jaialdian

Dena prest dago biharko VII. Play Back jaialdirako. Parte hartuko duten 60 lagunek ondo entsaiatu dituzte euren saioak eta honez gero, ezenatokira lotsa barik ateratzea baino ez zaie falta.

Partehartzaileek 18 bat saio desberdin egingo dituzte, beti ere umoretsuak. Horien artean ez dira falta izango ohiko Lola Flores eta Celia Cruz kantarien imitazioak. Urtero urtero Play Back jaialdiko neska dantzariak egiten duten koreografia ere izango da ikusgai, oraingoan Janet Jacksonen musikarekin.

Aurtengo aurkezleak Juanito Saizar eta Eva Romero izango dira. Azken hau berria da eta 18 urte baino ez ditu. Hala ere oso gustoko ei du saltsa-maltsan ibiltzea eta jaialdia aurkezteko proposamena egin ziotenean baietza beldurrik gabe eman zuen.

Aurtengo jaialdiaren beritasunei dagokionez, iazkoa baino motzagoa izango dela



Hamazortzi bat saio desberdin egingo dute parte hartzaileek.

esan behar da. Jose Ramon Arkauzek, SUDCeke partaideak aipatu duenez, iazkoa luzeegia izan zen eta horregatik aurtengo taldeei denbora jakin batetik ez pasatzeko agindua eman zaie. Jaialdiak ordu t' erdi edo bi orduko iraupena izatea espero dute.

Dekoratuei dagokionez, azken 7 urteotan ETBko Miramonetik ekarritakoak erabiltzen dituztela esan behar da. Hemen dik aurrera beriz, beste erabaterira moldatu beharko dutela aipatu du Arkauzek, ETBk datorenen urtean dekoraturik ez die la utziko esan die eta.

Sarrerak joan den astelehenean jarri zituzten salgai hainbat lekutan: Eresi, Monte eta Xaramelan eta 500 pta. balio dute. Azken urteotan bezala, bi emanaldi izango dira Amaia Antzokian, bata arratsaldeko 7etan eta bestea gaueko 10.30etan.

ERAKUSKETA GURE LEKUN



AITOR LODOSO

Erakusketaren irudietan erabilitako teknikak:

- Xilografia
- Kalkografia
- Serigrafia

Otsailaren
13tik
Martxoaren
30era



Zarugalde, 17 behea
Tfnoa: 79 20 29
ARRASATE



zken egun hauetako eguraldiaren antzekoa izango zuten seguruen argazkian dauden mendizaleek, horixe baitziren gehienak, sarri sarri mendira joaten diren horietakoak. Hori bai, argazkia ateratzeko unean ez ziharduan euririk eta manga motzak ikusita ez dirudi hotz handia zutenik.

Argazkia ikusi eta ez

ezagututa, zaila da esatea non aterata dagoen. Gezurra badirudi ere, Garagartzara daraman bidea da, gutxi gorabehera orain autoak garbitu eta txatarra uzten den pare hori.

Itxura baten badirudi egun horretan mendizale kuadrila Urkiolatik buelta eginda zetorrela. Goizean goiz bastoia hartu, botak

jantzi eta mendira, arratsalderako berriz etxerantz.

Ezkerretik hasita, honako hauek dira argazkian agertzen direnak: **Jose Ceciaga, Anton Leibar, Juanito Arriaran, Luis Zufiria, Andoni Axpe, Jose M^a Arsuaga, Alfonso Barrena eta Sabin Urrutia.** Ezin ukatu ez, umore onean zetozela.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

ARROGOI TABERNA

Haratuzte eguna iritri da Aragoira, zatorz guzana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

Z E R N A H I A G O ?

Ima Ruiz

“Perfumeria Ruiz”ekoa

- San Andresko bizilagunak dotoreak dira? Bai.
- Erdialdeko jendea etortzen da dendara? Bai.
- Belarritako luzeak ala txikiak? Orain txikiak, baina handiak ere jartzen ditut.
- Joaten zara gimnasia? Ez, ez dut denborarik.
- Zenbat kilo pisatzen duzu? 50en bat.
- Ile motza ala luzea? Motza.
- Hatzazkalak margotzen dituzu? Ez.
- Zapatak takoidunak ala lauak? Plataformadunak.
- Ze aldizkari irakurtzen duzu? Fotogramas, oso zinezalea naiz.
- Telebistan zer ikusten duzu? Ezer berezirik ez. ETB-2 eta TVE-2 kateak ikusten ditut.
- Martxoaren 3an bozkatuko duzu? Bai.



- Nora joango zinateke bizi izatera? Leku toleranteago batera.
- Ezpainak gorritz ala marroiez? Marroiez.
- Mozorrotuko zara? Bai.
- Lehen muxua: non eta noiz? Jai batzuetan 16 urterekin.
- Maitasuna betirako da? Baietz uste dut baina asko zaindu behar da.
- Ze ordutan oheratzen zara? Berandu, ordu bata t'erdia aldera.
- Txistezalea zara? Bai baina ez dakit konstatzen.
- Zer moduz doa 96a? Oso ondo, iazkoa bai no hobeto.
- Erretzen duzu? Bai.
- Baduzu mikro-uhinik etxean? Ez.
- Erosi duzun azken arropa? 2 praka pare.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
 ESTOMBA
 GOMEZ
 MURGIENDO
 OTALORA
 RUIZ**




Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• ESAERA •

“Maite ezazu artea.
Gezur denen artean,
gutxienez, zintzoan da.”


FLAUBERT

• JEROGLIFIKOA •



Non irakurri duzu hori?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Gaixotasun. 9. Gudu egin. 10. (Ald.) Txerriaren bizkarreko okela. 11. Oinez igarotzen den ibai gunea. 12. Litoia. 13. (Ald.) Kanpo. 14. (Ald.) Bi magnituderen erlazioa. 16. Orkestra-zuzendariaren makilatxo. 17. (Ald.) Probetxu. 18. Galdetzeko partikula.

Bertikalak 1. Erakunde baten ohiko etxea. 2. Iturriotz kaleko taberna. 3. Lohia, lokatza. 4. Bordatzeko ehun egokia. 5. Apaizaren laguntzaile. 6. Sasiz bete. 7. Alde hemendik. 8. Numeroari dagokiona. 14. (Ald.) Mediterraneo-lurmuturra. 15. Ate, hitz elkartuetan. 16. Burgosko ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Egun egokiak datoz lotsati aurpegi hori alde batera uzteko.

Taurus Zer dela eta hain kopetilun? Horrela egoteko motiborik ez duzu.

Gemini Ez dago sekreturik goiz edo berandu jakiten ez denik.

Cancer Pirata jantzirik aurkitzen ez baduzu abade jantzi zaitezke.

Leo Gomendio bat: karnabal ostean garizuma hasi.

Virgo Mamu mozorroa jazten baduzu arrakasta handiagoa izango duzu.

Libra Edozein gaiez hitzegiten duzu baina azkenerako aspergarria zara.

Scorpio Autoa oinez baino bizkorrago joateko da.

Sagitaris Matraka aurpegi horrekin ez duzu inor engainatuko.


Capricorn Esperientziak asko esaten du baina ez da guztia.

Aquarius Ez duzu jendea lotsagarri uzteko eskubiderik.

Piscis Ileapaindegia zer den badakizu? Komeni zaizu jakitea.

Otxe-Aundi

Torreauro, 9
Tfnok: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Anna de Codorniu

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Play Back Jaialdia asteazkenean telebistan

Arrasate Telebistako lankideak tramankulu guztiekin joango dira zapatuan Amaia Antzokira VII. Play Back Jaialdia grabatzera. Bertan jasotakoa asteazkenean ikusi ahal izango da Arrasate Telebistan gaueko 9.30etan. Rosi Katanga, Arristi, Txintxu, Hirukle taldea... guztiak izango dira umorez betetako asteazkeneko programa berezi horretan.



KOMIKIA



Zaguzar.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Jeroglifikoak: Liburu batean.

16. Bu.

7. Ur. 8. Numeral. 14. Oan. 15. Aia.

3. Idol. 4. Tul. 5. Akolito. 6. Sasitu.

Bertikalak: 1. Egoitza. 2. Rumba.

18. Al.

Ta. 14. Oitar. 16. Batuta. 17. Arno.

katu. 10. Omolos. 11. Ibi. 12. Lt. 13.

Horizontalak: 1. Ertasun. 9. Gudu-



16 Ostirala

13.30etan

Albiste aurrerapena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

9.30etan

Astebete

19 Astelehena

13.30etan

Albiste aurrerapena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

20 Asteartea

13.30etan

Albiste aurrerapena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Barrelekaixoka

21 Asteazkena

13.30etan

Albiste aurrerapena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

"VII. Play Back Jaialdia"

22 Osteguna

13.30etan

Albiste aurrerapena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

"Elkartean" saioa, Tomas

Axpek eta Karmele

Zuazubiskarrek

aurkeztuta.

Elkartea: Danok Bat

23 Ostirala

13.30etan

Albiste aurrerapena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

Etxebizitzak

- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Labastidan etxe adosatua salgai.** Bi solairu, garaje eta txokoz. Berogailua eta erdi jantzita. Tfnoa: (941) 12 33 75. Arratsaldez.
- **Mutil bat gela baten bila dabil Arrasaten.** Tfnoa: 71 42 00, 230 luzapena. Pablo.
- **Pisua alokatzen da Arrasaten.** Tfnoa: (94) 682 04 78.
- **Pisua salgai San Andresen.** Tfnoa: 79 77 17.
- **70m²ko lonja alokatzen da.** Ur eta indarraz. Tfnoa: 79 76 95.
- **Makatzenan etxebizitza salgai.** Tfnoa: 76 02 63.
- **Garaje plaza salgai Aldaigainen.** Tfnoa: 79 77 81.

Lana

- **Ileapaintzaile esperientziadun diplomaduna lana egiteko prest.** Tfnoa: 79 70 45.
- **Dekorazio diseinatzailea behar da.** Tfnoa: 79 21 26.
- **Komertziala behar da.** Tfnoa: 79 21 26.
- **Asteburutan kanguro lana egingo nuko.** Tfnoa: 79 73 01. Olga.
- **Euskara, gaztelania eta ingelesezko klase partikularak behar dira.** Tfnoa: 79 25 49. Iluntzean. Gor-ka.
- **Kontabilitate eskolak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 39 11. Goizez dei egin.
- **Neska gertu umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 77 94.

- **Euskara eta gaztelaniako itzultzailea behar dugu.** Tfnoa: 77 04 98.
- **Bulegoak, etxebizitzak, edo atarteak garbitze-ko gertu.** Tfnoa: 77 09 56.
- **Andra gereontologian diplomaduna eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 34 53.
- **Neska gertu arrasaldez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Irlandatik etorri berria ingelesezko klase partikularak emateko prest.** Tfnoa: 79 21 56.
- **Neska prest umeak zaindu edo etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko.** Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Bi neska gertu larunbatetan etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 38 48 edo 77 01 39.
- **24 urteko neska euskalduna etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Esperientziaduna eta informekin. Tfnoa: 79 37 82. Pili.
- **Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 71 44 27. Rakel.
- **Umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko neska gertu.** Tfnoa: 79 74 92.
- **Neska gaztea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 63 18.
- **Ileapaindegian diplomatua lan egiteko gertu.** Tfnoa: 79 63 18.
- **Neska bat garbiketak (etxeak, bulegoak, lokal komertzialak, tabernak...)** edo umeak zaintzeko prest Tfnoa: 79 85 40.
- **Neska prest pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 87 47.
- **Etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 36 79.
- **Etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 77 07 97.
- **Emakume euskaldunak eta esperientziadunak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 56 81.

- **Emakumea prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 73 83.

Salerosketak

- **Etxeko altzariak, elektrogailuak eta egurrezko minbrezko gauzak salgai.** Tfnoa: 77 09 66. Arratsaldez eta gauzez. Utzi mezua.
- **"De brie" artzai txakurkumeak salgai.** Marroiak edo beltzak. Tfnoa: 77 08 51.
- **COTA 311 oso egoera onean dagoen motorra salgai.** Kaskoa eta botak ere bat. Tfnoa: 79 50 23. Arratsaldeko 8.30etatik aurrera.
- **Kristalezko apalak salgai.** Hiru pisukoak. 30.000 pta. Dendetarako balio dute. Tfnoa: 79 65 31.
- **Eskulanak egiteko larrua salgai.** Tfnoa: 79 65 31.
- **Motorrean ibiltzeko larruzko trajea salgai.** Oso-rik edo bi zatitan saltzen dira. Praxak 32 tailakoa eta kazadora 40koa. Gauzez. Tfnoa: 78 87 47.
- **Casio CT-700 teklatura salgai.** Tfnoa: 79 05 75.
- **Eskritorioko aukia salgai.** Tfnoa: 79 05 75.
- **Español arrazako zaldi sementala daukagu.** Interesatuek dei egin 79 23 36 edo 79 46 75 tfnora.
- **Fagor markako ontzigarbigailua salgai.** Berri berria dago. Tfnoa: 79 82 73.
- **90 eta 80 boheak salgai.** Laminazko egurrekin, aita logelarako armairua. Tfnoa: 79 24 51.

Dendetarik

- **Etxeko eskriturak galdu zitzaizkidan astear- tean, hilaren 13an.** Udaletxea eta Maala bitartee- an.

Aste Gazte

Bekak

- "Margit eta folke pehrzon", Fundazioak, Suedian edozein gai-ri buruz ikasketak zabaltzeko bekak. Lizentziatuei zuzenduak, Suedia- ren edo ingelesa menperatzea derri- gorrezkoa da. Epea: martxoak 15.
- Gradu-osteko ikasketak zein doktorego-osteko ikerketa lanak egiteko "Ruth Lee Kennedy" beken deialdia. Lizentziadun nahiz dok- toregoa duten emakumei zuzen- duta. Ingelesa menperatzea ezin- bestekoa da. Epea: Martxoak 1.
- "Ramon Areces" Fundazio- ak, beka honen deia zabaldu du:

Europa Komunitateko Ekonomia eta Zuzenbideari buruzko ikaske- ten zabalkuntza atzerrian. Lizen- ziatuei zein ingelesa edo destino- ko herriaren hizkuntza menpera- tzen dutenei zuzenduta. Epea: api- rilak 15.

• Oñatiko Soziologiako Insti- tukoak "Renato Treves" beken deia egin du, Lege Soziologian nazio- arteko masterra ikasketak burut- zeko. Soziologian, zuzenbidean zein interesa duen beste edozein lizentziadunei zuzenduta. Ingele- sa menperatzea derrigorrezkoa da. epea: otsailak 29.

Ikastaroak

• "Euskal Dantzak" ikastaro- ak ("Lore Gazteak" taldearen esku- tik): 1) 10-14 urte bitartekoei zuzen- duta, asteazkenetan, 6.30etatik 7.30etara. 2) 15 urtetik gorakoei zuzenduta, martxoaren 15etik ekai- naren 14ra. Ostiraletan, 7etatik 8.30etara. Bikote mixtoek lehen- tasuna izango dute. Plaza muga- tuak. Matrikula 1.000 pta.

Lehiaketak

• "Gabriel celaya IV. Olerki Internazionalaren lehiaketa". Gaz- telania hizkuntza bezala duen edo- zein idazle har dezake parte. Epea: martxoak 29.

"Emakumeek, gizonak bezalaxe, hain askatasun handia izan behar dute gaztaroan, ezen askatasun hitza bera gorrotatzen amaitu behar duten"
NIGEL NICOLSON
"PORTRAIT OF A MARRIAGE"



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

OTSAILAREN
15etik
APIRILAREN
15era

ORAIN
%30
GUTXIAGO

FAGOR 

SUKALDE ALTZARIAK



Jose Aranzabal

SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktoea, 2 (San Andres auzoa)
Tfnoa: 79 18 92

ELEKTRAGAILUAK

Iturriotz kalea, 15
Tfnoa: 79 15 16

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamentako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektua. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 atean eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL

 **TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.